



‘Kontzertua & Proiektzioa’ Belodromoan:

Euskadiko Orkestrak, SGAE Fundazioak eta Donostia Zinemaldiak eskainitako zine-musika. Soinu-bandak kontzertuan eta pelikula-eszenen emanaldia

Zinemaldiaren 70. edizioan Euskadiko Orkestrak eskainiko duen zine-musikako kontzertua aurkezten dute **Euskadiko Orkestrak, SGAE Fundazioak eta Donostia Zinemaldiak**. Bi edizioz pandemiagatik falta izan ostean, berriz berreskuratu da hitzordu garrantzitsu hau. Ohikoa izan den moduan, Zinemaldiko lehen larunbatean, eguerdian irekiko da Belodromoa musikazale, zinemazale eta, oro har, ikusleentzat, soinu-banden joaldi sinfonikoa eta horien pelikula-eszenen muntaketa uztartzen dituen ikuskizunerako. Begi-belarriak plazerez goxatu ahal izango dira ordu eta laurdenez, **larunbatean, irailak 17, eguerdiko hamabietan hasita. Sarrera doakoa izango da.**

Musika-kontzertua klasiko bihurtu da dagoeneko Donostia Zinemaldian; sendotuta dago Belodromoko proposamenen artean, eta Zinemaldiko eszenatoki gogokoena da dudarik gabe, 3.000 plazako edukieraz. Aurtengoan **Juan José Ocón** donostiarra izango da orkestra zuzentzearen arduraduna zine eta soinu-banden elkartze jendetsu honetan.

Aurtengo **Kontzertua & Proiektzioa** zazpi filmetarako musikaren egokitzapenez osatzen da. Oraingo honetan hautatutako musikagile eta filmak honakook dira: **Alejandro Amenábarren *Mientras dure la guerra***; **Eva Gancedoren *La buena estrella***; **Carles Casesen *El portero***; **Carmelo Bernaolaren *Nueve cartas a Berta***; **Arturo Cardelúsen *Buñuel en el laberinto de las tortugas***; **Aitor Amezagaren *La sombra de nadie***; eta **Manel Gil-Ingladaren *Cher ami***. Aipatzekoa da, gainera, aurtén *Nueve cartas a Berta* filma Donostia Zinemaldiaren Klasikoak atalaren baitan ikus ahal izango dela.

Kontzertu berri honetarako, Euskadiko Orkestrak **Andra Mari Abesbatza** gonbidatu du: haiek arituko dira *Buñuel en el laberinto de las tortugas* eta *La sombra de nadie* filmetan.

Joan den urteetan bezala, kontzertuan ikusizko elementu bat gehituko da: musika pelikuletako eszena-muntaketa baten proiektioarekin uztartuko da 400 m²-ko pantailan, eta muntaketa hori Carlos Rodríguezek (Morgancreakoa) sortu du kontzertu honetarako espresuki. Gainera, musikagileetako batzuk kontzertura bertaratuko dira, Belodromoko oholtzan beren lana aurkeztera.

Sarrera doakoa da, eta nahikoa duzu gonbita irailaren 10etik 16ra Donostia Zinemaldiaren Kursaleko informazio-puntuan jasotzea, 9:00etatik 20:00etara, edo Donostia Turismoren bulegoan, astelehenetik larunbatera 9:00etatik 20:00etara, eta igandean, 10:00etatik 19:00etara. Azken sarrerak Belodromoko leihatiletan eskuratu ahal izango dira goizeko 10etatik aurrera.

KONTZERTUA & PROIEKTZIOA

Larunbata, irailak 17, 12:00

Donostiako Belodromoa

Programa

Alejandro Amenábar: *Mientras dure la guerra* (Zuzendaria: Alejandro Amenábar)

Eva Gancedo: *La buena estrella* (Zuzendaria: Ricardo Franco)

Carles Cases: *El portero* (Zuzendaria: Gonzalo Suárez)

Carmelo Bernaola: *Nueve cartas a Berta* (Zuzendaria: Basilio Martín Patino)

Arturo Cardelús: *Buñuel en el laberinto de las tortugas** (Zuzendaria: Salvador Simó)

Aitor Amezaga: *La sombra de nadie** (Zuzendaria: Pablo Malo)

Manel Gil-Inglada: *Cher ami* (Zuzendaria: Miquel Pujol)

Juan José Ocón, zuzendaria

Andra Mari Abesbatza*

Euskadiko Orkestra

Kontzertuaren gutxi gorabeherako iraupena: 1h15

Euskadiko Orkestra Zinemaldiarekin

Euskadiko Orkestraren zuzendari nagusi Oriol Rochen hitzetan:

“Urteetan zehar, Euskadiko Orkestrak modu askotan parte hartu du Donostia Zinemaldian. Bere parte-hartze nabarmenetako bat 2012ko edizioan egin zuen, orkestrak mundu osoan ospetsua den Juan Antonio Bayonaren *The Impossible* filmaren soinu-bandaren zuzeneko estreinaldian parte hartu zuenean (Fernando Velazquezek sinatutako partitura). Hurrengo urtetik aurrera, 2013tik aurrera, orkestra zuzeneko zine-musikako kontzertu bat eskaintzen hasi zen, lehenik Miramongo egoitzan, eta 2015etik aurrera Belodromoan, aurten arte mantendu duen eszenatoki handian. Zine-musikako kontzertuen hamarkada honetan, orkestrak *Handia*, *Errementari*, *Arrugas*, *Pájaros de Papel*, *You’re the One*, *Los crímenes de Oxford*, *Frío sol de invierno*, *Alatriste*, *Tadeo Jones 2...* bezalako film luzeen soinu-bandak interpretatu ditu. Guztira 58 soinu-banda interpretatu eta ikusarazi ditu denbora honetan Euskadiko Orkestrak. Gainera, aipatzekoa da orkestrak Zinemaldiaren sintonia grabatu zuela 1991 eta 1992ko edizioetan. Aurten ere Zinemaldiaren sintonia berria grabatu da, eta Óscar Abella Euskadiko Orkestrako tuba bakarlariaren parte-hartzea izan du”.

Zinemaldian daukan parte-hartze oparoaz gain, Euskadiko Orkestrak film-musikaren arloan lan handia egin du. Aipagarriak dira *Patria* eta *Maixabelen* soinu-banden azken grabazioak, baita aurreko batzuk ere, hala nola *A Monster Calls* —Fernando Velázquezek 2016ko soinu-banda onenaren Goya saria jaso zuen—, *Ocho Apellidos Vascos*, *Contratiempo*, *Submergence*, eta abar.

SGAE Fundazioa Donostia Zinemaldian

SGAE Fundazioak lankidetzeta eta laguntza harreman estua du Donostia Zinemaldiarekin. Hiru hamarkadatan zehar, Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiaen fundazioak jaialdiaren ekimenetan zein ekitaldi eta deialdi propioen garapenean hartu du parte, eskuzabal beti.

Erakundeak ia hiru hamarkadatan zehar egin dituen jarduera nabarmenen artean honako hauek izan ditzakegu aipagai: ***Made In Spain*** saila antolatzen laguntzea, alegia, gure ikus-entzunezko ekoizpen berrienarentzako nazioarteko erakusleihoa. Gainera, **Madrilgo Berlanga aretoan** (berau fundazioak berak kudeatzen duen aretoa izanik) sail edo emanaldi honetan lehiatzen diren filmen erakusketa bat programatzen dugu jaialditik egun batzutara. Era berean, topaketa profesionalak, aurkezpenak eta, bereziki, gidoilarien kolektiboari eskainitako sariak bultzatzen ditu, hala nola, **Julio Alejandro SGAE Gidoia Saria**, fikziozko film luzeentzat, **Euskal Herriko Gidoigile Profesionalen Elkarteren euskal produkzioa duen Gidoi Onenari Saria**, eta, genero-berdintasunaren aldeko **Dunia Ayaso Saria**. Honakoa irailaren 22an banatuko da aurten. Azkenik, ez dugu ahaztu behar, **Kontzertua & Proiektzioa** deritzon ekimenari esker Zinemaldiak beste ezinbesteko hitzordu bat duela soinu-bandekin eta musikagintzarekin. Abagune honetan, Anoetako Belodromoak kontzertu bat hartzen du, Euskadiko Orkestrak interpretatutako soinu-banden aukeraketa batekin, non erreferentziazko filmen zati bereziek berorren programazioa osatzen duten. 70. Donostia Zinemaldian SGAE Fundazioak garatuko dituen ekimen guztiak [fundazioaren webgunean](#) ikus daitezke.

Musikagileak

Alejandro Amenabar (*Mientras dure la guerra*, Sergio Jiménez Lacinaren orkestrazioa)

Zuzendari, gidoilari, ekoizle, aktore eta konpositore musikala, programazio honetan nabarmentzen den alderdia, alegia, bere ibilbideari joan den mendeko 90eko hamarkadaren hasieran ekin zion, hainbat film labur eginez, nahiz eta zuzendari gisa lehen arrakasta 1996an iritsi zitzaion, *Tesis* filmarekin. *Mientras dure la guerra* da, hain zuzen ere, bere azken filma, eta gidoi, zuzendaritza zein soinu-banda propioak ditu: 17 izendapen eta 5 Goya Sari lortu zituen beronekin 2020an, zuzendaritza eta ekoizpen onenarena, besteak beste. Bata bestearen artean, beste bost film eta hainbat telesail egin ditu, azkena, *La Fortuna*, Paco Roca eta Guillermo Corralen komiki batean oinarritutako nazioarteko ekoizpena. Madrilen bizi den sortzailea bere film luzeetako soinu-banden gidoilaria eta konpositorea izateagatik nabarmentzen da, eta, bide batez, enkarguz ere eginak ditu banda sonoroak bestelako zuzendarientzat. Javier Bardem protagonista duen *Mar adentro* filmarengatik Oscar bat eta Urrezko Globo bat irabazi ditu, eta mundu osoko zinemaldi nagusietan lortutako hogeit bat sari eskuratu ditu: Venezian edo Tokion, tartean. *Mar adentro* filmarekin Soinu Banda Onenari Goya Saria lortu zuen 2005ean ere. Guztira, Espainiako Zinema Akademiak emandako 9 Goya sari jaso ditu.

Eva Gancedo (*La buena estrella*)

Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Bostongo Berklee College of Music zentroan egin zituen musika-ikasketak. Zinemako musikako konpositore gisa, Rafael Gordon, Manuel Palacios edo Ricardo Franco bezalako zuzendariekin lan egin du, zeinarekin ohiko konpositorea izatera iritsi baitzen. Eszena-arloan ere baditu obrak, besteak beste, José Monleón (antzerkia) zuzendariarekin edo Carmen Senra (dantza) bezalako zuzendariarekin. Bere obrak, besteak beste, Espainiako Irrati Telebistako Orkestrak eta Pragako Orkestra Sinfonikoak interpretatu dituzte. Espainiako Zinema Akademiaren Soinu Banda Onenari Goya Saria jaso zuen *La Buena Estrella* filmaren musikagatik, eta lan horrekin Zinema Idazleen Zirkuluaren Saria ere irabazi zuen. Gaur egun, konpositore gisa duen jarduera lan pedagogikoarekin partekatzen du. Eskolak ematen ditun Ikus-entzunezko Komunikabideetarako Konposizioko Masterrean eta Musika Pedagogiako Graduan Katarina Gurska Goi Mailako Zentroan, baita Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan ere.

Carles Cases (*El portero*)

Carles Casesek 25 urte eman ditu zinemarako soinu-bandak prestatzen eta egiten, bai Europan, bai Amerikan. Gonzalo Suárez, Ventura Pons, Jaume Balagueró, Eduardo Rossoff, Jaime Chavarrí edo Stuart Gordon bezalako zuzendarien filmen ohiko musikagilea da, eta 70 soinu-banda zein 50 disko inguru argitaratu ditu, tartean, hiru mila kontzertu inguru interpretatu dituela. Ondare artistiko itzela, alegia. Gaur egun, hainbat ekoizpen konposatzen eta grabatzen dihardu, bere obren kontzertuen errealizazioarekin parekatuz, piano, dueto, hirukote edo orkestra formatuetan. 2021ean *Minimal* argitaratu zuen, bere lehen obra minimalista. 80ko hamarkadan Lluís Llach kantariaren musika-zuzendaritzan aritu zen, era eksklusiboan, bai disken grabazioetan bai zuzeneko emanaldietan, guztira, 800 kontzertu eginez. Charles Cross Akademiak (Paris) Album onenari Saria eman zion Lluís Llach *T'Estimo* lanagatik, hain zuzen ere.

Carmelo Alonso Bernaola (*Nueve cartas a Berta*)

Espainiako XX. mendearen bigarren erdiko konpositore handienetakotzat jotzen da. Armonia eta klarinetea ikasi zuen Burgos eta Madrilgo Goi Mailako Eskolatan. Bartók, Stravinski eta Hindemithen musikaren eragin handia izan zuen. *Cuarteto para cuerda* deritzon obrarekin Musikako Sari Nazionala irabazi zuen 1962an jada. Sienako Chigiana Akademian jarraitu zituen ikasketak, eta, horri esker, bere soinu-hizkuntza modernizatu zuen, erabateko berritzaile indartsua bilakatuz, ez polemikarik gabe, halaber, orkestra handirako bere estraineko emanaldietan. Obra luzea dauka: 100 film-banda baino gehiago, 50 antzerki-ekoizpen inguru, zortzi telesail gehi programak eta sintoniak egin zituen barra-barra. Zinema Musikako Sari Nazionala da (1969an eta 1973an), Musika zinematografiko Onenari Goya Saria (1989an) edota Espainiar Zinemako Akademiaren Urrezko Domina (2002an). Sari horiei eta unibertsitate zein kontserbatorioetan irakasle eta dibulgatzaile gisa egindako lanari honako aintzatespen hauek gehitu behar zaizkie: Arte Ederretako Merezimenduaren Urrezko Domina (1987), Musikako Sari Nazionala (1992), San Fernandoko Arte Ederren Erret Akademian sarrera (1993), Madrilgo Udalaren Meritu Artistikoaren Domina (1993) eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko *honoris causa* doktoretza (1997), besteak beste.

Arturo Cardelús (*Buñuel en el laberinto de las tortugas*, Amparo Edo Biol eta Arturo Cardelúsen orkestrazioa)

Arturo Cardelús Los Angelesen bizi den musikagile madrildarra da. The Wrap-ek “urteko soinu-banda onenatzat” jo zuen bere *Buñuel en el laberinto de las tortugas* lana, Goya Sarietan nominatua izan zen eta

Malagako Zinemaldian zein Annecykoan Mussika Onenari Sariak irabazi zituen. Egile honen beste lan batzuk honakoak ditugu: *In a Herartbeat*, Frida Kahloren erakusleho inmersiboa den *Black Beach*, Netflix Originaleko *Call Me Francis* miniseriea, *Los Descendientes*, Frank Marshallen *The People's Fighters* eta José Luis López Linaresen *Altamira*. 2016an Royal Academy of Music deritzon prestigiozko erakundeak bertoko bazkide izendatu zuen Cardelús, kontzertu-musikagintzari egindako ekarpenengatik. Londresko Royal Academy of Music delakoan piano ikasketak burutu zituen, hala nola Budapesteko Franz Liszt Akademian, Salamancako Goi Mailako Musika Eskolan eta Guadalajarako Kontserbatorio Profesionalean. 2008an beste norabide bat hartu eta Bostongo Berklee College of Music delakoan konposizioa eta zinema aztertzeri joan zen. Bertan, *Summa Cum Laude* aintzatespena erdietsi zuen, berau musikagintza sailaren aitorpen gorenena izanik han.

Aitor Amezaga (*La sombra de nadie*)

Bilbon jaioa eta Goi Mailako Eskolan formatua, Arthur Bersteinekin musika modernoko eta jazzeko L 'aula deritzon gunean bere prestakuntza osatzerik izan du, eta Guildhall School Music of London ospetsuaren Certificate of Keyboards erreztaldia lortu du. 1973az geroztik, 80 disko baino gehiagotan kolaboratu du moldatzaile eta grabaketa-musikari gisa; sei disko ditu merkatuan eta telebistarako, irratirako eta hainbat komunikabidetarako musika egin du bere ibilbide emankorrean. Sortutako doinuak Argentinan, Frantzia, Alemanian, Israelen edo Suitzan entzun dira, besteak beste, baina film luzeetarako soinu-banden esparruan lau proiektu egin ditu: Joseba Salegiren *Ione sube al cielo*, Pablo Maloren *Frio sol de invierno*, Jesús Ponceren *Skizo* eta Pablo Maloren *La sombra de nadie* berau. Gaur egun, pedagogiarekin tartekatzen du bere sormen-jarduera Donostiako Musika Eskolan klaseak emanez. Musiken ezezik, Irungo Kontserbatorioarekin eta Udako Euskal Unibertsitatearekin ere lankidetzari lanak burutzen ditu. Honez gain, dibulgatzaile gisa pianorako hiru partitura-liburu argitaratu ditu.

Manel Gil-Inglada (*Cher ami*)

Manel Gil-Inglada soinu-banden konpositore ospetsu eta maiz saritua dugu, eta nazioarte mailako 45 aintzatespen baino gehiago ditu izendapenen eta sarien artean, soilik azken hamar urteotan. 30 urte baino gehiagoko eskarmentua dauka ikus-entzunezkoaren sektorean, interprete gisa beste hainbeste ezezik. Bartzelonako Musika Moderno eta Jazzdeko Gelan egin zituen ikasketak, Film Scoring-en hainbat mintegi eta ikastarotan espezializazioa erdietsiz, José Nieto, Armando Trovaioli eta Ennio Morriconeren eskutik. Telebista-sintonia eta zinemarako soinu-banda askoren egilea da (film luzeak eta laburrak), eta animaziorako soinu-bandarekin lotutako hainbat masterretako irakasle ere badugu. Gaur egun, zinemagintza, orkestra eta bideojokoen musikagintzan dihardu; besteak beste, duela gutxi sortutako *Endling - Extinction is Forever* delakoa horren adierazgarri (hemen Tina Guo handiak eta Rusanda Panfilik parte hartu dute, biak Hans Zimmerren ohiko kolaboratzaileak izanik). Honakoa kritika on ugari zein bikainak jasotzen ari den soinu-banda dugu.